

KUTXA Enplegatuen Elkartea	Xenda-zaletasun atala
100. zka. 5 euskal hiribururen Zeharkaldi Handia	11. etapa/Ibero-Lizarraga mendatea 2015-10-17/18

Adiskide xenda zaleok:

Joan zen irailaren 19an Luzaide-Orreaga bide-zatia egiten egun ederra igaro ondoren, orain etapa honi ekingo diogu, bere garaian hau ere ezin izan genuen egin-eta. Abiapuntua Ibero herrian izango da, itsas mailatik 395 m-ra, Juan Martínez de Irujo (1981) pilotari ospetsuaren jaioterrian. Herri honetan jaio zen Nicolás Ollo Bidaurreta jeneral karlista ere.

Hemendik aurrera pixkanaka eta lur erosoan Etxauri Haitz edo Sarbil (1.138m) ingurutara igoko gara. Oso mendi ezaguna da eta erraz ikusten dena Iruñerriko hego-mendebaldean. Etxauri haranaren gaineko faila harkaiztsu garrantzitsuan, Nafarroako eskalada-eskola nagusia aurkitzen da.

Behin gailur-lerroan, "eskura" izango dugu talaia polit honetara igotzea, ikuspegi zabal-zabala eskaintzen duelarik alde guztietara. Handik bizkor jaitsiko gara Azantza herrira: hau mendebaldera dago Goñi haranaren gain batean, itsas mailatik 835 m-ra. Leku paregabea da hamarretakoa egin eta indarberritzeko.

Gero Urdanotz herrira iritsiko gara eta handik gorago dagoen pagadi zoragarriara igotzen hasiko gara, Andia mendi-kateko larre handien atarian, Andiara tapiz berde klasikoa zapalduz iritsiko garelarik. Behin goian, eta desnibelik gabe, azken zati eder hau egingo dugu: Lizarragako mendateraino eramango gaitu eta bertan amaituko dugu denetik duen zeharkaldi polit hau.

Animo, xenda zaleok, natura zain dugu-eta!!!

Ibilbidea: Ibero-Lizarraga mendatea

Beharrezko denbora		5,50									
Goranzko desnibel metatua		1.119 metro									
Beheranzko desnibel metatua		545 metro									
Zeharretara egin beharreko distantzia		24.745 m									
	Ingur un	1		Orientazioa	2		Joan-etorria	1		Esfortzu a	4

Irteera-lekua	Bilbo plaza (Bus geltokia 17/24) eta Pio XII plaza (Bus geltokia 24/27)
Aurkezteko ordua	07:20 (Bilbo plaza) eta 07:25 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua	07:30 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	Lizarragako Benta
Prezioa	31 euro

Izena emateko azken eguna: 2015-10-15a, 12:00etarako

Oharra: a/Ez badago gutxieneko parte-hartzailearik, irteera bertan behera geratuko da.
b/Eguraldiaren iragarpena larunbaterako txarra baldin bada, igandean egingo da ibilaldia.

Izen-emateak posta-helbide hauetan egin behar dira:
alahuerta@kutxabank.es edo telefono hauetan: 943-00.14.69 (Alberto Lahuerta-Baterakuntza eta Kostuak-969)/943-00.12.36 (Lorenzo Urretabizkaia-Gipuzkoa Sarea-5700).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta/Lorenzo Urretabizkaia